

3.2 GAIAREN LANKETA

> Lehen, egunero, orain, gero

- Joxeren gutuna



Kaixo, lagunak!

Zer moduz zaudete? Ni Oiameko irlan primeran nago. Esan nizuen hemengo nire laguna Airam dela, ezta? Airam oso neska jatorra da eta zuentzako lantxo bat egiteko eskatu diot. Berak oso gustura egin duela esan dit.

Lehendabizi, Airamek gaur zer egin duen kontatuko dizue. Ea zuek aste honetan zer egin duzuen kontatzeko gai zareten!

Gero, Oiameko neska-mutikoez egunero egiten dituzten gauzak zeintzuk diren ikusiko duzue. Argazkitxo batzuk egin ditut eta bidaliko dizkizuet.

Hori zen, momentuz, esateko nuen guztia.

I zango duzue nire berri.

JOXE